


M LH6

2017-2018



Zuzenketa koaderno

Izen-abizenak:

Ikastetxea:


Taldea/Gela:

Herria:

Data:

**Matematika
gaitasuna**

Lehen Hezkuntzako 6.a



Argibideak

Proba honetan testu batzuk irakurriko dituzu eta irakurri duzunari buruzko galdera batzuei erantzunen diezu.

Galdera mota desberdinak topatuko dituzu. Batzuek lau aukera dituzte erantzuteko, eta aukera zuzen bakarra hautatu beharko duzu eta biribil batekin inguratu haren ondoan dagoen letra.

Adibidez:

<p>Zenbat da $2 + 5$?</p> <p>A. 2</p> <p>B. 6</p> <p><input checked="" type="radio"/> C. 7</p> <p>D. 11</p>

Erantzuna aldatzea erabakitzen baduzu, ezabatu **X** batekin zure lehenbiziko aukera eta inguratu biribil batekin erantzun zuzen berria, adibidean agertzen den bezala:

<p>Zenbat da $2 + 5$?</p> <p><input checked="" type="radio"/> A. 2</p> <p>B. 6</p> <p><input checked="" type="radio"/> C. 7</p> <p>D. 11</p>
--

Beste galdera batzuetan eskatuko dizute erantzuna idazteko puntuekin seinalatzen den tartean:

<p>Idatzi zenbat angelu eta zenbat alde dituen triangeluak.</p> <p>.....</p>



Proba hau egiteko 60 minutu dituzu.

Tableta

Enekoren eskolan tabletak erosi nahi dituzte, Lehen Hezkuntzako 6. mailako geletan erabiltzeko. Gainera, familiak tableta erosi dio Enekori, eskolako blogeko ariketak egiteko.

1. Enekoren familiak 460 €-ko tableta erosi du, baina eskaintzan dago, irudian ikusten den bezala. Zenbat ordaindu du, deskontua egin eta gero?

- A. 115 €.
B. 345 €.
C. 368 €.
D. 435 €.

**%25eko
deskontua**



2. Etxera iritsitakoan, tabletaren ezaugarri fisikoak irakurtzen hasi da Eneko. Kuriositatez, tabletaren bolumena zein den jakin nahi du. Zer eragiketa egin behar ditu?

- A. $213,3 \times 123,3 \times 460$
B. $123,3 \times 460 \times 7,5$
C. $213,3 \times 460 \times 7,5$
D. $213,3 \times 123,3 \times 7,5$

Tabletaren ezaugarri fisikoak	
Altuera (mm)	123,3
Zabalera (mm)	213,3
Pisua (g)	460
Sakonera (mm)	7,5


3. Enekok tabletaren neurriak unitatera biribildu ditu. Tabletak marko beltza du pantailaren inguruan. Marko horrek 1,5 cm-ko zabalera du ezkerrean eta eskuinean, eta 1 cm-ko altuera du goiko zatian eta behekoan. Zer azalera du tabletaren pantailak?

- A. $17\,949 \text{ mm}^2$.
B. $18\,849 \text{ mm}^2$.
C. $22\,374 \text{ mm}^2$.
D. $26\,199 \text{ mm}^2$.

1,5 cm
|←→|



4. Enekoren amak Piet Mondrian pintorearen irudi bat jarri du tabletaren pantailaren erdian. Eneko laukizuzenak zenbatzen hasi da.




Guztira, zenbat laukizuzen daude Piet Mondrianen irudian, posible diren tamaina guztietakoak?

- A. 8.
B. 11.
C. 22.
D. 23.
5. Tabletaren pantailan ageri den irudia aurkitu du Enekok Interneten. Zer gorputz geometriko irudikatzen du eskultura honek?



6. Interneten aurkitu duen mandala bat margotu nahi du Enekok. Ikusi tabletaren pantailako irudia.

Zenbat simetria ardatz ditu pantailako mandalak?



- A. Bi ardatz.
B. Hiru ardatz.
C. Sei ardatz.
D. Zortzi ardatz.

7. Eskolakoak eskaintzak begiratzen ari dira, 24 tableta erosteko. Ikusi bi promozio hauek.

A eskaintza

5 tableta erosita,
beste bat opari!

6x5



236 €/unitatea

B eskaintza

Ordaindu prezio osoaren 3/4!



245 €/unitatea

Kalkulatu eskaintza bakoitzean zein den prezio osoa, merkeena zein den jakiteko.

Idatzi eragiketak eta soluzioa.

Egin beharreko kalkuluak. Zenbait metodo daude, adibidez:

A eskaintza: $24 - 4 = 20$; $236 \times 20 = 4720$ €

B eskaintza: $245 \times 24 = 5880$; $5880 \times 0,75 = 4410$ €, merkeagoa

Aldea: $4720 - 4410 = 310$ €

...**B**... eskaintzarekin prezio osoa merkeena da, eta horrekin ...**310**... euro aurrezten dira.

Zuzenketa irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Planteamendu okerra. Era berean, 0 puntu emanen dira ikasleak kalkuluko 2 hutsegite edo gehiago egin baditu, edo soluzio bat idazten badu (zuzena izanagatik ere) ariketa ebazteko prozesua azaldu gabe.
1	Planteamendua zuzen egin du, baina kalkuletan hutsegite bat bakarra egin du.
2	Planteamendua zuzen egin du, baita azken soluzio zuzena idatzi ere.

Irakasleak, matematika eskolan, hiru tableta-modeloren ezaugarriak erakutsi ditu. Ezaugarri horiek izan zituzten kontuan eskolako tabletak erosterakoan.

	A modeloa 	B modeloa 	C modeloa 
Barne-memoria (Gigabytetan, GB)	16	8	32
Pantaila (hazbetetan)	10,1	10,1	8,4
Bateriaren iraupena (minututan)	420	330	540
Prezioa (eurotan)	263,3	129,6	536,5

8. Kalkulatu hiru tableta-modeloen batez besteko prezioa.

Idatzi eragiketak eta soluzioa.

Egin beharreko kalkuluak.

$$263,3 + 129,6 + 536,5 = 929,4 \text{ €}$$

$$929,4 : 3 = 309,8 \text{ €}$$

Hiru tableta-modeloen batez besteko prezioa ...**309,8**... eurokoa da.





Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Planteamendu okerra. Era berean, 0 puntu emanen dira ikasleak kalkuluko hutsegiteren bat egin badu, edo soluzio bat idazten badu (zuzena izanagatik ere) ariketa ebazteko prozesua azaldu gabe.
1	Planteamendua zuzen egin du, baita azken soluzio zuzena idatzi ere.

9. A eta B tableta-modeloetarako, zein da barne-memoria berreketa moduan adierazita?

- A. A modeloa: 4^2 GB B modeloa: 3^2 GB.
- B. A modeloa: 4^2 GB B modeloa: 2^3 GB.
- C. A modeloa: 2^4 GB B modeloa: 3^2 GB.
- D. A modeloa: 2^2 GB B modeloa: 2^3 GB.


10. Zer grafikok irudikatzen ditu zuzen bateriaren iraupenari buruzko datuak (taulakoak), baina ordutan ipinita?

- A. A grafikoak.
- B. B grafikoak.
- C. C grafikoak.
- D. D grafikoak.




11. Eneko jarduera bat egiten ari da gelako blogean. Ikusi tabletako pantailako lau irudiak eta aukeratu erantzun zuzena.

- A. 1. irudia eratu da 3. irudiaren translazioz, eta 4. irudia, berriz, 2. irudia biratuta.
- B. 1. irudia eratu da 2. irudia biratuta, eta 3. irudia, berriz, 2. irudiaren simetria.
- C. 4. irudia eratu da 2. irudiaren translazioz, eta 4. irudia, 3. irudiaren simetria.
- D. 2. irudia eratu da 4. irudia biratuta, eta 1. irudia, 3. irudiaren simetria.



12. Enekoren ikaskide batek, gelako blegean, jarduera bat planteatu du bere etxeko lorategiari buruz.



Gogoratu π zenbakiak 3,14 balio duela eta kontuan izan honako formula hau:

$$\text{Zirkuluaren azalera} = \pi \times \text{erradioa}^2$$

Idatzi eragiketak eta soluzioa.

Egin beharreko kalkuluak. Zenbait metodo daude, adibidez:

Laukizuzenaren azalera (lorategia): $40 \times 20 = 800 \text{ m}^2$

Zirkuluaren azalera (igerilekua): $14 : 2 = 7$; $3,14 \times 49 = 153,86 \text{ m}^2$

Belar eremuaren azalera: $800 - 153,86 = 646,14 \text{ m}^2$

Belar eremuaren azalera: ...**646,14**... m^2

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Planteamendu okerra. Egin beharrekoak diren kalkuluetak bakar bat ere ez du zuzen egin.
0,5 + 1,0	Zuzen kalkulatu ditu lorategiaren azalera (0,5 puntu) eta igerilekuaren azalera (1,0 puntu).
2	Kalkulu guztiak zuzen egin ditu eta zuzen erantzun dio problemari.

Donejakue bidea

Erromes askok Orreagan hasten dute Donejakue bidea. Bidean hainbat herrialdetako erromesak ibiltzen dira.



Bakoitzak bere moduan egiten du bidea (oinez, bizikletan, dena jarraian, zatituta zenbait urtetan, etab.). Atsedenaldiak egiten dituzte indarrak berritzeko. Erromes gehienek aterpetxeetan egiten dute lo.

13. Erromes talde batek Donejakue bidea egin behar du, Iruñetik Santiago de Compostelara.



Hona hiru erromesen solasaldia:

- Markos: Zenbat neurtzen du Iruñetik Santiago de Compostelara arteko lerro zuzenak?

- Sara: Lerro zuzenak 11 cm neurtzen du.

- Mikel: Beraz, zenbat kilometro egingo genituzke lerro zuzenari jarraituz eta zenbat gutxi gorabehera bideari jarraituz?

- | | |
|-------------------------|---------------|
| A. Lerro zuzena: 520 km | Bidea: 700 km |
| B. Lerro zuzena: 572 km | Bidea: 570 km |
| C. Lerro zuzena: 572 km | Bidea: 700 km |
| D. Lerro zuzena: 520 km | Bidea: 600 km |

Orreagatik Logroñora doan tartea sei etapa ditu, eta horiek honako taula honetan ageri dira:


Etapak	Distantzia (km)
(1) Orreaga – Larrasoaña	27
(2) Larrasoaña – Iruña	15
(3) Iruña – Gares	24
(4) Gares – Lizarra	19
(5) Lizarra – Los Arcos	20,5
(6) Los Arcos – Logroño	27,5

14. Erromes frantses bat oinez doa eta etapa bat egiten du egunean. Erromes belgikar bat, berriz, bizikletan doa eta bi etapa egiten ditu egunean.

(a) Osatu ondoko taula; bertan jaso dira bi erromesek 3 egunetan egiten dituzten distantziak:

Egunak	Erromes frantsesa Distantzia, oinez (km)	Erromes belgikarra Distantzia, bizikletan (km)
1. eguna	27	42
2. eguna	15	43
3. eguna	24	48

(b) Egin barra-grafiko bikoitza, aurreko taulako datuak irudikatzen dituena:



Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Erantzun okerra edo osatu gabea.
1	Zuzen osatu ditu bi erromesetako baten datu guztiak (taula eta grafikoa).
2	Zuzen osatu ditu bi erromesen datu guztiak (taula eta grafikoa).

15. 20 km egin eta gero, erromes belgikarra geratu egin da atsedean hartzeko. Nola kalkulatzen da bizikletako gurpil batek zenbat bira eman dituen, gurpilaren erradioak zenbat neurtzen duen baldin badakigu?

- A. Ibiliko distantzia gurpilaren luzerarekin zatituz.
- B. Ibiliko distantzia gurpilaren luzerarekin biderkatuz.
- C. Ibiliko distantzia gurpilaren erradioarekin zatituz.
- D. Ibiliko distantzia gurpilaren azalerarekin zatituz.

16. Herri batetik pasatzean, erromes talde bat atun lata bat erostera joan da, kiloaren $\frac{3}{4}$ ekoa. Atunaren 2 kilok 30 euro balio badu, zenbat ordaindu dute kiloaren $\frac{3}{4}$ eko latagatik?

Idatzi eragiketak eta soluzioa.

Egin beharreko kalkuluak. Zenbait metodo daude, adibidez:

A metodoa: 2 kg = 8 laurden

$$30 : 8 = 3,75$$

$$3,75 \times 3 = 11,25 \text{ €}$$

B metodoa: $\frac{3}{4}$ kg = 0,75 kg

$$\left. \begin{array}{l} 2 \text{ kg} \leftrightarrow 30 \text{ euros} \\ 0,75 \text{ kg} \leftrightarrow ?? \text{ euros} \end{array} \right\} \rightarrow 30 \times 0,75 : 2 = 11,25 \text{ €}$$

C metodoa: 30 : 2 = 15 euro/kg

$$\frac{3}{4} \text{ kg} = 0,75 \text{ kg}$$

$$15 \times 0,75 = 11,25 \text{ €}$$

Kiloaren $\frac{3}{4}$ eko lata batek ...**11,25**... euro balio du.

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Planteamendu okerra. Era berean, 0 puntu emanen dira ikasleak kalkuluko <u>2 hutsegite edo gehiago</u> egin baditu, edo soluzio bat idazten badu (zuzena izanagatik ere) ariketa ebazteko prozesua azaldu gabe.
1	Planteamendua zuzen egin du, baina kalkuluetan hutsegite <u>bat bakarra</u> egin du.
2	Planteamendua zuzen egin du, baita azken soluzio zuzena idatzi ere.

Erromes ingeles batek txokolate tableta bat erosi du eta bilgarrian ageri den informazio nutrizionalari buruz ari da hitz egiten bideko lagun batekin.

TXOKOLATEAREN INFORMAZIO NUTRIZIONALA		
	100 g-ko	Zati 1*
Balio energetikoa	480 kcal	120 kcal
Gantzak	33 g	8,3 g
Karbohidratoak	44 g	11 g
Elikagai-zuntza	9,3 g	2,3 g
Proteinak	9,8 g	2,5 g
Gatza	0,27 g	0,07 g

* Zati 1 = 25 g txokolate (6 ontza)



17. Erromes ingelesak 5 txokolate ontza jan ditu. Karbohidratoen zer kantitate jan du gutxi gorabehera?

- A. Gutxi gorabehera 9,2 g.
- B. Gutxi gorabehera 20,8 g.
- C. Gutxi gorabehera 36,7 g.
- D. Gutxi gorabehera 55 g.

18. Erromes ingelesak 200 gramoko txokolate tableta bat erosi du, aterpetxean lo egiten duten erromesen artean banatzeko. Zenbat ontza ditu txokolate tableta honek?

- A. 12 ontza.
- B. 24 ontza.
- C. 48 ontza.
- D. 60 ontza.

- 19.** Kantabriako erromes bat Donejakue bidea egiten ari da udako bere oporretan. Bere hirian hasita 520 km eginen ditu guztira. Bidearen $\frac{2}{5}$ egin badu, zenbat kilometro falta zaizkio Santiagora iristeko?
Idatzi eragiketak eta soluzioa.

Egin beharreko kalkuluak.

Zenbait metodo daude, adibidez:

A metodoa: $520 \text{ren } \frac{2}{5} = 208$

$520 - 208 = 312 \text{ km}$

B metodoa: $520 \text{ren } \frac{3}{5} = 312 \text{ km}$

...**312**... km falta zaizkio Santiagora iristeko.

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Planteamendu okerra. Era berean, 0 puntu emanen dira ikasleak kalkuluko <u>2 hutsegite edo gehiago</u> egin baditu, edo soluzio bat idazten badu (zuzena izanagatik ere) ariketa ebazteko prozesua azaldu gabe.
1	Planteamendua zuzen egin du, baina kalkuletan hutsegite <u>bat bakarra</u> egin du.
2	Planteamendua zuzen egin du, baita azken soluzio zuzena idatzi ere.

20. Erromes japoniar batek datorren asteko prezipitazioen (eurien) aurreikuspena begiratu du. Zira eramanen du, prezipitazioen probabilitatea %10etik gorakoa bada. Begiratu taula eta aukeratu erantzun zuzena.

Prezipitazioen probabilitatea						
Astlehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala	Larunbata	Igandea
%30	%10	%0	%60	%100	%75	%25

- A. Astlehenean zira eramanen du, zalantzarik gabe, euria egiteko probabilitatea 1/3tik gorakoa delako.
- B. 2 egunetan ez du zirarik eramanen, prezipitazioen probabilitatea 1/5etik beherakoa delako.
- C. 3 egunetan zira eramanen du, prezipitazioen probabilitatea hiru laurdenekoa delako.
- D. Asteazkenean eta ostiralean zira eramanen du, zalantzarik gabe, euria egiteko probabilitatea %50ekoa delako.

21. Erromes alemaniar batek 21 km-ko etapa amaitu du oinez. Urratsak zenbatzen dituen podometro bat darama. Bere batez besteko urratsa 0,56 m-koa da. Zer eragiketa egiten du podometroak urrats kopurua zenbatzeko?

- A. $21 : 0,56$.
- B. $21000 : 0,56$.
- C. $2100 : 0,56$
- D. $21000 : 560$.



22. Erromes aragoiar batek, duela gutxi zaharberitutako aterpetxe batean hartu du ostatu. Jabeak aipatu dio zaharberitzeagatik 25 250 € ordaindu duela. Zaharberitzea amaitzean, 3650 € ordaindu du eta gainerakoa hilabetea ordainduko du 4 urtean. Zenbat euro ordainduko ditu hilabete bakoitzean?

Idatzi eragiketak eta soluzioa.

Egin beharreko kalkuluak.

$$25250 - 3650 = 21600 \text{ euro}$$

$$12 \times 4 = 48 \text{ hilabete}$$

$$21600 : 48 = 450 \text{ euro hilabete}$$



Hilabete bakoitzean ...**450**... euro ordainduko ditu.

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Planteamendu okerra. Era berean, 0 puntu emanen dira ikasleak kalkuluko 2 hutsegite edo gehiago egin baditu, edo soluzio bat idazten badu (zuzena izanagatik ere) ariketa ebazteko prozesua azaldu gabe.
1	Planteamendua zuzen egin du, baina kalkuluetan hutsegite bat bakarra egin du.
2	Planteamendua zuzen egin du, baita azken soluzio zuzena idatzi ere.

23. Aterpetxeko arduradunak honako esaldi hauek esan dizkio erromes gazte bati.

- (1) Atzo gutxienez 30 erromesek egin zuten lo.
- (2) Atzo gehienez 31 erromesek egin zuten lo.
- (3) Atzo ez zuten 35 erromesek egin lo.
- (4) Atzo 32 erromes baino gutxiagok egin zuten lo.
- (5) Atzo 32 erromesek behintzat egin zuten lo.
- (6) Atzo ez zuten 30 erromes baino gehiagok egin lo.

Atzo 32 erromesek egin bazuten lo, aurreko esaldietatik zeintzuk dira egiazkoak?

- A. **Lehena, hirugarrena eta bosgarrena.**
- B. Lehena, bigarrena eta hirugarrena.
- C. Lehena, laugarrena eta bosgarrena.
- D. Lehena, hirugarrena eta seigarrena.